

6 mantangorri

LIBURUAK

Izenburuak: ‘Porrotx ispiluan’, ‘Pirritx titia ematen’, ‘Marimotots errekan’ eta ‘Pupu eta Lore zilipurdika’. **Testuak:** Mitxel Murua (lehen hirurak) eta Uxue Alberdi. **Marrazkiak:** Julen Tokero. **Bilduma:** Nor gara? **Orrialde kopurua:** 16na orrialde, koloretan. **Argitaletxea:** Elkar.

CO AZOKA

**Mitxel Murua**

IDAZLEA

«Erritmoari eta umoreari leku berezia ematen saiatu gara»


Nor gara?da bildumaren izena, baina galdera soberan dago, haur, gazte zein helduek primeran ezagutzen baititzte Pirritx, Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore. Euren gorputzei begira jarririk dira pailazoak, eta ikusi dutena kontatzen dute, hitz errimatu eta jostagarrien bidez. Mitxel Muruak apaindu ditu Pirritx, Porrotx eta Marimototsen hitzak, eta Uxue Alberdik Pupu eta Lorerenak. Julen Tokero arduratu da pailazoentzako erretatuak egiteaz.

Pailazoek zer kontatzen digute liburu hauetan?

Bakoitzak bere gorputzari erreparatu eta hartaz kontzentzia hartzen du. Gorputzaz jabetzeko, ordea, bere izatearen kontzentzia ere behar du aldi berean; hau da, bakoitza berezia eta bakarra dela jabetuz joaten da. Hasieran, haurra titikoa denean, titikit edo biberotik zintzilik bizi da, gurasoen eta, bereziki, amaren mende. Pirritxen ipuinean, Pupuk eta Lorek «titia-titia» eskatzen dute etengabe. Pixkanaka, ordea, haurra inguruko munduaz jabetzen hasten da. Grabitatea deskubritzen du, adibidez.

Etxeko pitxer ederren kalterako...

Bueno, haurra esploratzalea da, ikerlari puru-puru, eta egiten di-



tuen aurkikuntzakin batera hitz eta kontzeptu berriak bereganatzuk joaten da: punbal!, krak!, punpal... Edo nesken eta mutilen arteko desberdintasunez ere jabetzen hasten da.

Porrotx mutila dela jabetzen da, esaterako.

Bai, noski. Ispilu baten aurrean jarzen da, eta kontziente da ispiluan dagoena bera dela; bere burua ezagutzen du ispiluan islatuta. Haurra heltzeko, ordea, eboluzio bat,

ikasketa prozesu bat behar izan du. Animalien artean, bakar batzuk baino ez omen dira kapaz ispiluan bere burua ezagutzeko, eta haurrak ere behar du bilakaera bat horra heltzeko. Porrotxek ere bai, noski: bi belarri eta aho bat dauzkalak konturatzen da, bi barrabil eta zakil bat...

Marimototsek neska dela kontatuko digu.

Hori da. Bere eskuko hatzak nolakoak diren eta zertarako erabil-

tzen dituen esplikatzen digu, baita pototina eta ipurdia dauzkala ere: «Neska naiz, eta halaxe nago egina, jatorra eta fina!».

Sexualitateari buruzko liburuak ere badira, beraz.

Sexualitatea pertsonaren parte da, sortzen denetik hiltzen den arte. Titiko umeek oso ondo pasatzen dute titirri tiraka; lasaitu egiten dira urduri daudenean, adibidez, eta egun osoa titia eskatuz pasatzen dute. Gero, autonomia hartuz doazen neurrian, bere burua eta ingurua ezagutuz joaten dira, eta sexualitatea beste adierazpideak hartuz joaten da.

Hitz gutxi eta jostagarri osatzen da testua.

Erritmoari eta umoreari leku berezia ematen saiatu gara. Euskarazko tradizioan badira kantu, jolas eta poema ludiko franko gorputzaren ezaguerari buruz, eta hortik jo dugu, gure ukitua emanet beziere, jakina.

Marrazkiak ere ikusgarriak dira.

Aldi honetan, haurra bere gorputzaz jabetzen dabilelarik, egundoiko garrantzia dauka irudiak, eta joko ikusgarria ematen du. Pailazoak biluzik agertzen dira, adibidez, eta horri ere garrantzizko irizten diogu, haurra sexualitatea naturalasunez bereganatuz joan dadin.

Pailazoak zuk eta Tokerok bezain ongi ezagutzen dituenik ba al da? Lan asko egin duzue elkarrekin.

Pailazoak Euskal Herri osoak ezagutzen ditu, urte asko daramatzate-eta plazaz plaza. Haurren imaginarioaren parte dira. Igarkizun bat dirudi: «Tipitaki, tapataki / sudurgorri hauek zertan dabiltsan / Euskal Herrian nork ez daki?». Katxiporetal, ez zait ia inor etortzen burrura... bakarren bat edo beste kenduta.